BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2525

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 3koa, Ingurumeneko sailburuordearena, burdinurtu nodularra galdatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Iurretako udalerrian (Bizkaia) Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 21ean, Jose Ramón Borea Martínez jaunak, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresaren izenean eta ordez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Iurretako (Bizkaia) udalerrian burdinurtu modularren galdaketa egiteko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

– Oinarrizko proiektua (2006. urtea): memoria, eranskinak eta planoak.

– Laburpen ez-teknikoa (2006. urtea).

Aipatutako baimena eskatu zuen garaian Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak ez zuen jarduera-lizentziarik. Enpresa sustatzaileak hauek zituen, hondakinen, isurien, jabari publikoaren eta gainazaleko uren aprobetxamenduaren esparruan indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki: industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko 2005eko maiatzaren 27ko inskripzioa; ibilgura isurtzeko baimena, 1998ko abenduaren 4koa (Fundiciones Amboto, S.A. ren izenean emana) eta 2003ko martxoaren 5ekoa (titulartasuna aldatu zen Fundición Nodular Flesic, S.A.ren izenean); eta ur publikoen bilketaren ematea (Ibaiazabal ibaia eta putzua), 1998ko martxoaren 10ekoa.

2007ko otsailaren 17an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Iurretako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Ebroko Ur-konfederazioari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari txostena eskatu zitzaizkien.

2007ko martxoaren 19an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko uztailaren 27an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko abenduaren 17an emandako ebazpenaren bidez jendaurrean jarri zen, 30 egun baliodunen epean, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko urtarrilaren 23an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, ez zen alegaziorik jaso.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17 eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko irailaren 19an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Iurretako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao-Bizkaiko Uren Partzuergoari.

2008ko uztailaren 1ean eta 2010eko ekainaren 1ean, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak aurreko dokumentazioa osatzeko beste dokumentu batzuk aurkeztu zituen.

2008ko azaroaren 20an, 2009ko ekainaren 15ean eta 2010eko irailaren 9an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Iurretako Udalaren eta Bilbao-Bizkaiko Uren Partzuergoaren txostenak jaso ziren.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluari jarraituz, espedientea Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresaren esku jarri zen 2011ko apirilaren 15ean; bertan zegoen Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak landutako Ebazpen-proposamena ere, enpresak egoki iritzitako agiri eta egiaztagiriak aurkezteko.

Legez ezarritako epearen baitan, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak alegazioak aurkeztu dizkio igorritako ebazpen-proposamenari, eta argudiatu du proposamen horretan ez direla adierazi baimentze-prozeduran dokumentatutako isuri atmosferikoen iturriak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: kolektorera isurtzeko baimena, hondakin arriskutsuak sortzeko baimena, industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ingurumeneko Baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Iurretako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsatzaileen balioak eta ingurumena bere osotasunean ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen-proposamen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, galdaketaren sektorerako 2005eko maiatzeko BREF agiriaren edukia izan da kontuan (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry).

Gainera, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzen eta betetzen duen Araudia onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua aplika daiteke.

Azaldutako guztiaren ondorioz, proiektu osoaren ingurumeneko ebaluazio bat eginik, ebazpen-proposamen hau sinatu da, eta Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri dira. Hori guztia Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan aurreikusitako entzunaldi-izapideari kalterik egin gabe.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Iurretako (Bizkaia) udalerriko Mallabiena auzoko 9an eta IFK: A-48204796 zenbakia duen Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea Iurretako (Bizkaia) udalerrian burdina nodularra galdatzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 2.4 kategorian, «Burdina-metalen galdaketa, eguneko 20 tona baino gehiago ekoizteko ahalmena duena».

Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresaren instalazioak Iurretako udalerrian daude, hiriko industria-eremu gisa katalogatutako gune batean.

Enpresan burdinurtu modularra egiten dute, sektore hauetarako piezak egiteko: trenbidea, automobilgintza, eraikuntza, mantenua, burdindegia/brikolajea, eskuzko tresnak eta nekazaritzako makinariaren balbulak. Azken urteetan, urteko batez besteko ekoizpena 3.100 t ingurukoa izan da.

Ekoizpen-prozesuak etapa hauek ditu: lehengaiak jasotzea, galdatzea eta galda, moldekatzea, argintza, hoztea eta desmoldaketa, eta biltegiratzea eta bidaltzea.

Hauek dira lehengaiak: «txatarra garbia» automobilgintzako sektoretik, lingoteetatik, barne-itzulkinetatik eta ferroaleazioetatik hartutakoa.

Lehengai horiek arroagodun labe batean kargatzen dira, maiztasun apaleko indukzioan. Galdatzeren ondoren, galda zepagabetzen da, eta zaliaren gainera isurtzen da. Moldeetara eraman baino lehen, zaliari nodulizazio-tratamendu bat ematen zaio. Ondoren, moldeak betetzen dira, polispastoen laguntzaz.

Moldekatzeko etapan fabrikatzen dira moldeak, eragiketa hauen bidez:

– Silizezko harea, harrikatza, bentonita eta ura nahasten dira.

– Garraio pneumatikoa moldekatze-eremuetaraino.

– Nahastea modeloetan presio bidez injektatzea.

Arrak fabrikatzean, erretxinak eta katalizagailuak erabiltzen dira. Fabrikazioa 4 makina automatikoetan egiten da, kutxa beroaren bidez azalkian arrak fabrikatzeko, eta 3 makina automatikoetan, kutxa hotzaren prozesuaren bidez arrak fabrikatzeko. Fabrikatutako arrak alkohol isopropilikoa oinarri hartuta margotzen dira.

Galda solidotu ondoren (hozte-lerroan), desmoldatu egiten da, eta piezak granailatu egiten dira. Desmoldaketa-lerroan sortzen den harea berreskuratzeko instalaziora eramaten da.

Bukatzeko, azken piezak biltegiratu egiten dira produktu amaituen eremuan, bildu eta bezeroari bidaltzen zaizkio.

Instalazioan energia hauek erabiltzen dira: energia elektrikoa (galdaketa-prozesuan kontsumoaren % 85, gainerako instalazioetan % 15), propanoa (galdaketa-prozesuan, argintza eta ur beroaren galdaran) eta gasolioa (eskorgen funtzionamendurako).

Gaur egun isuri atmosferikoen 4 foku zarratu daude guztira:

– Indukzio-labeak.

– Argintza.

– Granailatzeko makina.

– Hareategia.

Horrez gainera, eragiketa hauekin lotutako partikulen igortze barreiatuak daude: galda zalira iraultzea (galdaketa-prozesuan), galda moldeetara isurtzea (moldekatze-prozesuan) eta parrilla bibratzailean (desmoldatze-prozesuarekin lotuta).

Hondakin-uren isuriei dagokienez, fluxu hauek sortzen dira:

– Ur beltzak, kolektorera isurtzen direnak.

– Euri-urak, Ibaizabal ibaiaren ibilgura isurtzen direnak.

– Labeen hozte-zirkuitu itxien purgaketa. Oro har, ez dira purgaketak egiten, baina isuriz gero, kolektorera bideratzen dira.

– Konpresoreen purgaketak, kudeatzaile baimenduaren bidez bilduak eta kudeatuak.

Hozte-zirkuitutik datozen uren fluxuei hozteari buruzko 2001eko abenduko zeharkako BREF agiria aplikatzen zaie (Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems).

Bost hozte-zirkuituk osatzen dute enpresako hozte-sistema: 1. laberako zirkuitu itxi bat (aireko hozkailu bat duena), 2. laberako zirkuitu itxi bat (aireko hozkailu bat duena), konpresoreentzako zirkuitu itxi bat (aireko hozkailu bat duena), argintzarako zirkuitu itxi bat (teilatu lauko igerilekuak) eta beste zirkuitu itxi bat disentzat (teilatu lauko igerilekuak).

Proiektuak barne hartzen ditu, besteak beste, neurri hauek, 2005eko maiatzako Europar Batasuneko galdaketaren sektoreko BREF erreferentziazko agiriak (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry) jasotzen dituen teknika erabilgarri onenetzat jo daitezkeenak (TEO):

– Txatarra estalita biltegiratzea.

– Galdatzea: isuria bide lehorrean biltzea eta araztea.

– Moldekatzea: hareen birsorkuntza mekanikoa izatea, errota nahastailutik eta hozkailutik datozen isuriak mahuka-iragazki baten bidez xurgatzea eta garbutzea.

– Granailatzea: bide lehorrak sortutako isuria mahuka-iragazki baten bidez biltzea eta garbitzea (isuria barnekoa da, ez dago kanpora doan fokurik).

– Kanpora igorritako zarata: neurketa orokorrak eta espezifikoak, zarata kontrolatzeko, desmoldatzaileak ixtea, indargetzaileak erabiltzea garraio pendularrean.

– isuri barreiatuak: lehengaiak estalita biltegiratzea.

Bigarrena.– Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak Iurretako udalerrian (Bizkaia) sustatutako burdina modularra galdatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Burdina nodularra galdatzeko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gaindituko.

Era berean, prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Burdina nodularra galdatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku-zk.	Erregistro-liburuko izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa	Katalogazioa (Taldea)	UTM koordenatuak	
						X	Y
1	48/-16426/-01	Indukzio-labeak	18 m	1,3 m	B	528739	4780544

Foku-zk.	Erregistro-liburuko izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa	Katalogazioa (Taldea)	UTM koordenatuak	
						X	Y
2	48/-16426/-02	Xurgatzea argintza Bzv eta Loramendi	5 m	0,2 m	C		
3	48/-16426/-03	Xurgatzea granailatzeko makina	9 m	0,65 m	C		
4	48/-16426/-04	Hareategia-errota	6 m	2 m	C	0528724	4780480

Sustatzaileak FE02 eta FE03 fokuen UTM koordenatuak aurkeztu behar ditu.

Gainera, erregimen eteneko isuri barreiatuak ere sortzen dira eragiketa hauetan:

– Galdatze-prozesuan, galda zalira iraultzean.

– Moldekatze-prozesuan, galda moldeetara isurtzean.

– Desmoldaketa-eremuan, parrila bibratzailean.

B.1.1.3.– Isuriaren muga-balioak.

a) Isuri atmosferikoek isuriaren muga-balio hauek ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua(k)	Substantziak	Isuriaren muga-balioak
Indukzio-labeak	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
	Dioxinak eta furanoak (PCDD/PCDF)	≤ 0,1 ng TEQ/Nm^3
Xurgatzea argintza Bzv eta Loramendi	Aminak	20 mg/Nm^3
Xurgatzea granailatzeko makina	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3
Hareategia - errota	Partikula solidoak (PS)	20 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isuriaren muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an, muga-balioa gehienez % 25 gainditzea onartuko da. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusten diren zuloen kokapen eta ezaugarriei dagokienez, egokitu behar dira laginak hartzeko gunetik fluxuaren noranzkoaren eta kontrako noranzkoaren arabera (L1 eta L2 parametroak) neurketa-gunea baino lehenago dagoen fluxu gaseosoko edozein

perturbaziora arteko distantziak, 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldez aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

Isuri barreiatuak murrizteko, galdaketa- eta galda-prozesuan xurgatze-suburuak daude. Hurrupatze-ahoak xurgatze-fluxua berbideratzeko sistema bat du, eta hala, xurgatze-emari osoa urtzen ari denean labeetara bideratzen da. Galda zalira iraultzen denean, berriz, xurgatze-kanpaiak bere fluxua areagotzen du zalitik gertuen dagoen eremuan. Desmoldatzeko parrilla bibratzaileari dagokionez, eremuan itxitura eta xurgatze lokalizatu bat instalatzeko aukera aztertzen ari dira.

B.1.2.– Saneamendu-sarera eta emarira isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isuria sortzen duen jarduera-mota nagusia: Burdinurtzea.

Isurpen-gunea	Hondakin-ur mota	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurpen-puntuaren UTM koordenatuak
1	Sanitarioak Labeen hozte-sistema itxiaren purgaketak	Kolektorea	-	-	X: 528.820 Y:4780730
2	Euri-urak	Ibaizabal ibaia	Nerbioi	I. kategoria	X: 528.942 Y:4780726

Jarduera-taldea: metala.

Mota-taldea-EJSN: 1/-2/-2751.

Konpresoreen purgaketak kudeatzaile baimendu baten bidez kudeatuko dira, edo purgaketetako hidrokarburoak hidrokarburo-bereizgailu baten bidez kenduko dira, ondoren kolektorera isurtzeko.

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

1. isuria: ur beltzak eta labeen hozte-sistema itxiaren purgaketak.

Eguneko gehienezko bolumena	2,78 m^3
Urteko gehienezko bolumena	1.025 m^3

2. isuria: emarira (Ibaizabal ibaia) isuritako euri-urak.

Urteko gehienezko bolumena	7.652 m^3

B.1.2.3.– Isuriaren muga-balioak.

Saneamendu-sare nagusira egiten diren isurketen ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

1. isurpen-gunea (kolektorera isurtzea):

Parametroa	Isurketarako muga-balioa
pH	6-9,5
Tenperatura.	45 ºC
Solido esekiak (SE)	600 mg/l
A eta G (min)	50mg/l
A- eta G. (v. eta a.)	500mg/l
S=	2mg/l
$SO_4^=$	1.500mg/l
CN^-	2mg/l
Nitrogeno erasokorra	120mg/l
$N\text{-}NH_3$	300mg/l
As	1,5mg/l
Cd	1,5mg/l
Cr*	7,5mg/l
Cu	7,5mg/l
Fe	150mg/l
Ni	5mg/l
Pb	3mg/l
Zn	15mg/l
Hg	1,5mg/l
Ag	1mg/l
Fenolak	50mg/l
Toxikotasuna	$50eq/m^3$

* Eguneko batez besteko kontzentrazioak ezin izango du gainditu 0,75 mg/l-ko kromoaren guztizko kontzentrazioa.

Tenperatura: beheko emarian 1,5 ºC areagotzea.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak bere euri-urak erabat bereizita dagoen sare baten bidez isurtzen ditu emari publikora, enpresaren iparraldeko eremuan izan ezik. Eremu horretako euri-urak bildu egin behar dira, gainerako euri-uren linearekin batera husteko, eta isurpen-gune berean eta bakarrean isurtzeko.

Gaur egun, hiru dekantazio-kutxatila daude, solidoak euri-uretara ez isurtzeko. Hala ere, dauden instalazioek ez balute lortuko emarira isurtzen denaren kalitatea behar dena izatea, dekantazioa duen hidrokarburo-bereizgailu bat instalatu beharko litzateke, euri-uren isuri guztiak tratatzeko behar adina edukiera izango lukeena eta dauden hiru dekantazio-kutxatiletan kokatuko litzatekeena.

Eremu komunak garbi mantendu beharko dira, eta egurats zabalean ez dira biltegiratuko hautsak eta harea finak dituzten zakuak. Ke-xurgatzeko zink-zakuak fabrikaren barruan biltegiratu beharko dira beti.

Kutxatila bat jarriko da isurpen-gune bakoitza kontrolatzeko; kutxatila horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzeneko lekuan kokatuko dira.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Fabrikan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren hondakin mota ezberdinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorrian bertan bereiziko dira, eta hondakinak biltzeko eta biltegiratzeko bitarteko egokiak jarriko dira, nahasketarik ez gertatzeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, lehentasunez instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken norakoa zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraiki, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartu behar dira. Datu horiek jardueraren adierazletan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan [2.d) idatzi-zatian] ezarritakoaren kalterik gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isuriak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Iurretako Udalean (Bizkaia).

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Galdaketa».

○ 1. hondakina: «Zink-hondakinak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R4/S35//C7//H14//A241//B0010.

– EHZ: 100207.

– Urtean sortutako kantitatea: 50.000 kilogramo.

Galdaketa-labeetan xurgatzearen ondorioz sortzen da. Hauts-itxurako hondakin bat da, big-bag delakoan ontziratzen dena, eta barruan biltegiratzen da, kudeatzaile baimenduari eman aurretik. Biltegiratze-eremua berariazkoa da. Hormigoizko lurzorua eta metalezko apalategiak ditu, eta apalategietan pilatzen dira big-bag delakoak.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Makinetako olioak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R1//L8//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 130208.

– Urtean sortutako kantitatea: 4.960 kilogramo.

Makinen mantentze-lanen ondorioz sortzen da. Plastikozko GRG edukiontzi hermetiko batean biltzen da. Teilapean biltegiratzen da, hormigoizko zolarriaren gainean, kudeatzaile baimendu bati eman baino lehen.

○ 2. hondakina: «Konpresore-purgaketak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R1//L9//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 130802.

– Urtean sortutako kantitatea: 3.000 kilogramo (gutxi gorabehera).

Konpresorea purgatzean sortzen da, eta ur eta olio nahaste bat da. Hondakina plastikozko GRG edukiontzi hermetiko batean ontziratzen da, eta kanpoaldean biltegiratzen da estalita, lurzoru estankoaren gainean, kudeatzaile baimendu bati eman aurretik.

○ 3. hondakina: «Substantzia arriskutsuz bustitako metalezko bidoiak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43-51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.860 kilogramo.

Produktu kimikoak erabiltzegatik sortzen da. Hondakina ontziratu gabe biltegiratzen da, paletetan, eta kanpoaldean biltegiratzen da estalita, lurzoru estankoaren gainean, kudeatzaile baimendu bati eman aurretik.

○ 4. hondakina: «Aerosolak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43-51//H5-14//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 120 kilogramo (gutxi gorabehera).

Ontzi mota horietan ontziratutako produktu kimikoak erabiltzeagatik sortzen da. Hondakina metalezko bidoietan ontziratzen da, eta kanpoan biltegiratzen da estalita, zolarri estanko baten gainean, kudeatzaile baimenduari eman aurretik.

○ 5. hondakina: «Harea olioarekin (xurgatzailea)».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q4//D9//S27//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo (gutxi gorabehera).

Olio jarioak jasotzeko xurgatzailea erabiltzegatik sortzen da. Hondakina metalezko bidoietan ontziratzen da, eta kanpoan biltegiratzen da estalita, lurzoru estanko baten gainean, kudeatzaile baimenduari eman aurretik.

○ 6. hondakina: «Xurgatzaileak edo kutsatutako solidoak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S35//C43-51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo (gutxi gorabehera).

Mantentze-prozesuan eta jarioak jasotzean sortzen da. Hondakina metalezko bidoietan ontziratzen da, eta kanpoan biltegiratzen da estalita, lurzoru estanko baten gainean, kudeatzaile baimenduari eman aurretik.

○ 7. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//C16//H5-14//A241//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kilogramo.

Luminariak berriz jartzean sortzen da. Hondakina metalezko bidoietan ontziratzen da, eta kanpoan biltegiratzen da estalita, lurzoru estanko baten gainean, kudeatzaile baimenduari eman aurretik.

○ 8. hondakina: «Baztertutako ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/8.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 3 ale.

Baztertutako ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak ordezteko lanetan sortzen da. Ez dute berezko biltegiratze modurik.

○ 9. hondakina: «Plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43-51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 11 ale.

Ontzi mota horietan ontziratutako produktu kimikoak erabiltzean sortzen da. Hondakina paletetan jartzen da eta kanpoan biltegiratzen da estalita, zolarri estanko baten gainean, kudeatzaile baimenduari eman aurretik.

○ 10. hondakina: «Isuriak arazteko sistemetako iragazkiak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/10.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 ale.

Hautsitako maukak berriz jartzean sortzen da zehazki hondakin hori. Big-bag delakoetan, metalezko bidoietan edo kartoizko kaxetan biltegiratzen dira egurats zabalean, teilatupean, kudeatzaile baimenduari eman aurretik.

○ 11. hondakina: «PKB duten aparatuak».

– Identifikazioa: A48204796/48000016426/2/11.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 ale (1 transformadore).

Enpresak PKB duen transformadore bat du, eta transformadore hori kudeatzaile baimendu baten bidez egoki kudeatuko da, bere bizitza baliagarriaren amaieran.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori

Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoak, xedatutakoa. Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiriak gutxienez bost urtez gorde beharko dira.

j) Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, 2006ko ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du 2007ko martxoaren 1 baino lehen. Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

k) Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

l) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

m) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta l) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

n) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta

gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

o) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hondakina zein motatakoa den eta zein osagai arriskutsu dituen (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota) definitzen dute, bai eta hondakina zein jarduerak eta zein prozesuk sortzen duen ere (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa organo honek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balioa ematea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeko eskatzen bada.

p) Baldin eta lurrak mugitzea eragingo duten obrak egin behar badira, ekoizpen-jarduera duten eremuetan nahiz ez dutenetan, jardueraren sustatzaileak hondeatu behar dituen materialak bereiztu beharko ditu (lurrak, hondakinak eta abar), jardun kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzearren eta, bereizketa horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren. Jarduerarik egin ez den lekuetan egiten badira obrak, ez da bereizketa hori egin beharko, jarduerarik ez egote hori behar bezala arrazoituz gero.

Sobera geratu diren materialak instalazio berean erabili nahi izanez gero, 1/2005 Legean, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoan, ezarritako EBA-B (industria-erabilera) balioa baino txikiagoa lortu beharko dute material horiek, eta lur horietako hidrokarburo-edukiak ez du arriskutsua izan beharko. Soberakinak zabortegian hustu nahi badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan, hondakinak hondakindegian utziz desagerrarazteko eta betetzekoan, adierazitakoaren arabera egingo da hondakinen bereizketa. Otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako EBA-A balioak baino txikiagoak lortzen dituzten lurrak lur naturaltzat hartuko dira, eta, beraz, ez dute erabilera-mugarik izango.

Era beran, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 10. artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoaren arabera, jarduera ezartzeko edo zabaltzeko beharrezko hondeatze-lanetan edo lur-mugitzeetan kutsadura-zantzuak hautematen badira, lan horien arduradun zuzenak horren berri eman beharko dio udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, beharrezkoa izango balitz hartu beharreko neurriak ezar ditzan, 17. artikuluko seigarren paragrafoak ezarritakoa betez.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Gutxi gorabeherako ekoizpena
Hareak	100906	Moldekatzea	1.000 t /urtean

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Gutxi gorabeherako ekoizpena
Zepak	100903	Galdaketa	180 t /urtean
Papera eta kartoia	150101	Zerbitzu orokorrak	2.260 t /urtean
Plastikoa	150101	Zerbitzu orokorrak	---
Erregogorra	161104	Galdaketa	---
Burdinazko metalak	191202	Galdaketa	200 t /urtean
Txatarra	191202	Akabera	30.560 t /urtean

a) Enpresak urtero sortzen dituen «plastikoa» eta «erregogorra» hondakinen kopuruari buruzko datuak eman beharko ditu.

b) «Hareak» eta «erregogorra» hondakinen kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, Ebazpen honetako B.1.3.1. atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

c) B.1.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, «nahasketak» izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan hauek dira balioztagarritzat jotzen diren zatiak: papera eta kartoia, egurra, plastikoak, metal ferrikoak eta ez-ferrikoak.

d) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

e) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezingo dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

f) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

g) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegietan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

h) Erregistro bat edukiko du, eta bertan, ondorengo datu hauek jasoko dira: kopurua, izaera, identifikazio kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumene Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

i) Aipatutako f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta h) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak honako zereginak izango ditu:

● Hondatutako eremuak berreraikitzea.

● Txatarren biltegiratzea estaltzea, lixibiatuak lurrera eta uretara iragaztea murrizteko.

● Hondakin arriskutsuek eragin ditzaketen jarioen ixtea ziurtatzea, Ingurumen Sailburuordetzak ezarritako betekizunak betez (produktu kimikoen biltegiratzearen erregelamendua izango da erreferentziazko esparrua):

○ Hondakin arriskutsu likidoak edo lohitsuak, bai eta oretsuak ere, likido asko izateagatik isurtzeak eragin ditzaketenak, biltegiratzeko guneetan, kubetoak edo gerta daitezkeen jarioak gordeta geratzen direla bermatzen duten bilketa-sistemak jarri beharko dira.

○ Kubetoek banakakoak izan behar dute isuriren bat gertatu eta nahastuz gero, arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakinetarako.

○ Upeltxo edo ontzi bakoitzaren bolumena gutxienez tamaina handiena duen ontziaren aizan behar da edo guztizkoaren % 10 (kantitate bien artean, handiena).

Gomendio hauek kontuan izango dira gainera:

● Hauts-itxurako materialak arrastatzea murriztuko da, honelako sistema orokorrak ezarriz:

○ Hauts-itxurako gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako tokietan biltegiratu.

○ Haize gogorra dabilenean hauts-itxurako solidoak manipulatzea saihestu.

○ Materialak deskargatzeko garaiera mugatu.

● Lur zatian isuria, jario edo ihesen eraginpean dauden gainazal guztiak zolatu eta iragazgaiztu egingo dira.

● Isuriak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan gordeko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak.

● Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkotan biltegiratutako produktu kimiko likido guztiek (batez ere gai eta prestakin arriskutsuak) eta biltegiratutako erregai likidoek jarioak biltzeko sistema izango dute.

● Produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudiak eragindako biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Petrolio-instalazioei buruz indarrean den araudiaren mende dauden biltegi guztiek araudi horretan ezarritako babes-neurri guztiak beteko dituzte. Egiaztapen horiek egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

● B.1.3 atalean adierazitako jarraibideekin bat etorriz biltegiratuko dira hondakinak.

● Baldin eta lurrak mugitzea eragingo duten obrak egin behar badira, jardueraren sustatzaileak hondeatu behar dituen materialak bereiztu beharko ditu (lurrak, hondakinak eta abar), jardun kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatzearren eta, bereizketa horren emaitzen arabera,

horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearren. Bereizketa horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari bidali beharko zaizkio materialak kudeatu baino lehen, balora ditzan. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 10. artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoa betez, jarduera ezartzeko edo zabaltzeko hondeatze-lanetan edo lur-mugitzeetan kutsadura-zantzuak hautematen badira, lan horien arduradun zuzenak horren berri eman beharko dio udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, hartu beharreko neurriak ezar ditzan sailburuordetzak, 17. artikuluko seigarren paragrafoak ezarritakoa betez, beharrezkoa izango balitz.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB ere.

a.2.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB ere.

a.3.–. Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
Ld	75
Le	75
Ln	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gainditukо.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48/-16426/-01	Indukzio-labeak	Partikula solidoak (PS)	Urtean behin
			Dioxinak eta furanoak (PCDD/PCDF)	Lehen urtean
2	48/-16426/-02	Xurgatzea argintza Bzv eta Loramendi	Aminak	Hiru urtean behin
3	48/-16426/-03	Xurgatzea granailatzeko makina	Partikula solidoak (PS)	Hiru urtean behin
4	48/-16426/-04	Hareategia-errota	Partikula solidoak (PS)	Hiru urtean behin

Aurreko atalean aipatutako aldizkako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egin diren neurketen emaitzak, mantentze-eragiketak, garbiketa, aldiroko berrikuspenak, matxurengatiko geldialdiak, egiaztapenak, edozein motako gertaerak, eta abar. Dokumentazio guztia eguneratuta edukiko da eta ingurumen-ikuskarien eskura egongo da.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurpen-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Ur beltzak	X: 528.820 Y: 4.780.730	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritako parametro bereizgarriak	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritako maiztasuna	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egindakoak

b) Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen diren egunetik hasi eta1 hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isuriak baimeneko betekizunak betetzen dituela iritziko da, B.1.2.3. atalean ezarritako mugak gainditzen ez baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren ohiko adierazleak eta adierazle horiek analizatzeko sistematika zehaztu beharko ditu, enpresak berak ingurumena hobetzeko ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko.

C.4.– Zarataren kontrola.

a) Hiru urtean behin, 60 segundotan Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta LAeq indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, txosten batekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.5 burdinurtzearen epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo isuriak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta segurtasun-neurriei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Gasolioa, erretxinak, katalizatzaileak, olioak, taladrinak, disolbatzaileak eta abar, eta oro har, instalazioan sortutako hondakinak, besteak beste, maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek betetzen dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Andel, putzu edo terrazen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Ebazpen honen B.1.4 atalean deskribatutako jarduerez gain, gasolioa biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar bezala isolatuko dira, haustura, ustekabeko gainezkatze, eta abarrengatik gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko.

l) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakin, erregai edo substantzien isuri garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

m) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriaren bat egonez gero, SOS Deiaki eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari-mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

n) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Aipatutako informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-LeeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak, xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

G) Instalazioetan egiten den edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da; horretarako, helbide elektroniko honetan datorren formularioa beteko da: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek eskatutako aldaketa kalifikatu eta funtsezkoa den ala ez esango du.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean, edo proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskinean sartuta badago, hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/1208 Errege Dekretu Legegilearen I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.1.2. atala (2 eta 3 isurpen-fokuen UTM koordenatuak); B.1.2.4. atala (Enpresan iparraldeko eremuko euri-urak euri-uren sarearekin konektatzeko justifikazioa, eta dagoen dekantazio-sistemak euri-urak beharrezko kalitatearekin isurtzea lortzen duela); B.1.3.1. atala («baztertutako ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak», «PKB duten aparatuak», «Isuriak arazteko sistemetako iragazkiak», «harea olioarekin (xurgatzailea)» eta «xurgatzaileak edo kutsatutako solidoak» hondakinak onartzeko dokumentua); B.1.3.2. atala («plastikoa» eta «erregogorra» hondakinen urteko kantitatea, eta «hareak» eta «erregogorra» hondakinen bereizketa, hustu baino lehen); C.3. atala (jardueraren adierazle bereizgarriak eta adierazle horien analisirako sistematika); C.4. atala (zarata nola kontrolatuko den zehaztea, hartuko diren neurri

teknikoak baliagarriak direla zehazteko, eta neurketen proposamen zehatza, neurketa-metodo zehatzak aintzat hartuz eta ingurumena zaintzeko programaren testu bateginean sartuz); C.6. atala (ingurumena zaintzeko programaren dokumentu bategina); D.1. atala (programatutako mantentze-lanetan sor daitezkeen isurien eta hondakinen kalkulua); D.3. atala (produktu kimikoen biltegiratzeari buruzko indarreko araudia eta suteen aurkako babesari buruzko indarreko araudia betetzearen ziurtagiriak).

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako Ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuetan.

Artikulu hori betetzearen kalterik gabe, ebazpen honen baldintzak –ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne hartuta– aldatu ahal izango dira, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

– Araudi berria indarrean jartzen bada.

– Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

– Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Seigarrena.– Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresak Ebazpen honen xede den burdina nodularra galdatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

– Ez epean egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumen-baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, betiere, interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fundición Nodular Flesic, S.A. enpresari, Iurretako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 3a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERAN VERGARA.